

GARAPENAREN ALDEKO BORONDATEZKO LANA EGITEN DUTEN IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.

I Kapitulu.

Baldintza orokorrak eta ordenantza honen aplikazio-eremua.

1. artikulua.-xedea.

1. Ordenantza honen xedea 2. artikuluan aipatutako subjektu eta erakundeek garatzen dituzten proiektu eta programa humanitarioak elkarrekin finantzatzeko diru-laguntzak arautzea da, baldin eta proiektu eta programa humanitarioron helburua bada garapenean laguntzea, garapenerako hezkuntza eta sentiberatzea.

2. Ordenantza honi Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta hura garatzeko erregelamendu orokorrean ezarritakoa aplikatuko zaio.

3. Ordenantza honetan ez dira sartuko larrialdietarako laguntzak emateko proiektuak eta gizarte zerbitzuek erantzuten dietenak.

2. artikulua.-Eskatzaileak

1. Nortasun juridiko propioa duten gobernuzko kanpoko elkarte, erakunde eta organizazioek (legez eraturako GKEak) diru-laguntza hauek lortzeko aukera izango dute baldin eta irabazteko asmorik ez duten lankidetzaren proiektuekin lotuta badaude, Euskal Autonomia Erkidegoan behar den moduan erregistratuak badaude eta 3.artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. artikulua.-Baldintzak.

1. Eskaera egin eta 2. artikuluan zehaztuta dauden elkarte, erakunde eta organizazioek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1.1. Beren egoitza nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.

1.2. Agiri bitartez egiaztatzea gutxienez bi (2) urteko esperientzia duela diru-laguntza eskaeran adierazitakoaren antzekoak edo berdinak diren proiektuetan.

1.3. Beren xedeen artean, arauon eta deialdi honen 1. artikuluan zehaztutako helburua duten proiektuetarako jarduerak egitea.

1.4. Aurretik Lezamako Udalaren dirulaguntzarik hartu badu, dirulaguntza hori oinarrian eta deialdi honen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera justifikaturik izatea.

- 1.5. Proiektua edo programak egutegiko urtearen barruan aurkeztea.
1.6. Arauotan eta aplikatu beharreko gainerako araudietan ezarriak dauden gainerako baldintza eta eginbideak betetzea.

II. Kapitula.

Eskabideekin aurkeztu beharreko agiriak.

4. artikulua.-Baldintza orokorrak eta agiriak.

1. Interesa dutenek ezarri diren baldintzak bete eta honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

1.1. Eskabide orokorra betetzea. Gainera, diru sarrerak eta gastuak bereizita eta xehatuta dauzkan aurrekontua erantsi behar diote eskaerari, eta adierazi behar dute zein finantza-bitarteko aurreikusita dauzkaten dirulaguntza eskaeran azaldutako proiektu, programa edo jarduera betearazteko; aurreko urtean dirulaguntzarik eskatu badu, haren justifikazioa egiaztatu beharko du.

1.2. Elkartea, erakundea edo organizazioa irabazteko asmorik gabekoa dela egiaztatzen duten agiriak, egoki beteak eta bestelako agirietatik bereizita egongo direnak; agirion artean, gutxienez, honako hauek egon behar dute:

1.2.1. Erakunde eskudunaren erregistroko inskripzioaren fotokopia egiaztatua edo ziurtagiria. Aurretik hura egiaztatua badago, ez da halako agiririk aurkeztu beharko.

1.2.2. Elkartearen indarreko araudiaren edo erakundearen sortze edo erregulatze arauaren fotokopia, behar den moduan egiaztatua; agiriotan jasota egon behar du bere helburuen artean dagoela oinarri hauen helburuan adierazitakoetariko bat. Aurretik hura egiaztatua badago, ez da halako agiririk aurkeztu beharko.

1.2.3. Erakundearen ordezkariaren zinpeko adierazpena; adierazpen horretan zehaztuko da nortzuk diren zuzendaritza organoaren kideak eta zenbat diren bazkideak.

1.2.4. Gizarte Segurantzarekiko eginbideen ordainketa egunean daukala frogatzen duen agiria.

1.2.5. Bere zerga eginbideen ordainketa egunean daukala frogatzen duen agiria.

1.2.6. Egiaztatzea eskaera sinatzen duen pertsonak erakundearen legezko ordezkari duela; egiaztasun horretan adieraziko dira egoitzaren kokapena, ordezkariak erakundearen duen kargua eta haren NANaren edo agiri baliokidearen fotokopia.

1.2.7. Ziurtagiria, erakunde eskatzaileak kontua irekia duen bankuak emana, kontu zenbakia adieraziko duena.

1.2.8. Diruz babestutako jarduerak aurrera eramateko gaitasuna duela egiaztatzea; bere helburuetara heltzeko behar beste azpiegitura duela egiaztatzea.

1.3. Eskaera egiten duen erakundearen IFKren fotokopia.

1.4. Zinpeko adierazpena, proiektuak edo programak gehiegizko finantzatzerik izango ez duela ziurtatzen duena.

Diru-laguntza eskaeran azaldutako programa, proiektu eta jardueraren edukari buruzko agiriak, erabat bete eta beste agirietatik bereizita aurkeztuko direnak; hala

aurkeztu behar da dirulaguntza mugatuta baitago dirulaguntza jaso dezakeen proiektu edo programa batera (1). Agiritan jarduerari, programari jarduerari buruzko deskripzio zehatza egin behar da; deskripzio horretan, helburuak, parte-hartzaileak eta hura egingo den egunak eta tokiak zehaztuko dira. Helburu horretarako, dirulaguntza eskaeran azaldutako jarduerarako edo programarako jarriko diren giza baliabide eta baliabide materialen zerrenda eta deskripzioa aurkeztuko ditu. Agiri horretan egiaztatu behar da jarduera hori dela medio interes publiko bat edo onura publiko bat lortuko dela edo, behinik behin, halakoak lortzen lagunduko dela. Diru sarrera eta gastuen aurrekontu xehea erantsiko da; aurrekontu horretan zehaztuko da zein finantza-bitarteko erabiliko diren (kuotak, emaitzak, beste dirulaguntza batzuk, publizitatea.) proiektua gauzatzeko.

III. Kapitulua. Epeak.

5. artikulua.-Eskaerak eta agiri osagarriak aurkezteko epea.

1. Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izango da, dagokion deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunetik zenbatuta.
2. Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, akatsak aurkituko balira edo eskabideek aipatutako betekizun guztiak beteko ez balituzte, eskaera egingo zaie interesdunei 10 egun balioduneko epean agiriak zuzendu ditzaten; halaber, ohartaraziko zaie emandako epean eskatutako zuzenketak egin ezean, eskabidea bertan behera utzi dela ulertuko dela.
3. Edozein epetako azken eguna zapatua edo jaieguna balitz, epea hurrengo egun baliodunean amaituko litzateke.

6. artikulua.-Ebazteko epea.

1. Eskabideak, gehienez ere, **lau** hilabeteko epean ebatziko dira eta jakinaraziko zaizkie interesdunei, dagokion deialdia argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
2. Esan den epea igarotzen bada diru-laguntza emateari buruzko berriazko ebazpenik eman gabe, eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko da.

IV. Kapitulua.

Dirulaguntza emateko prozedura, balioztatze irizpideak eta instrukzio organoa.

7. artikulua.-Instrukzio organoa eta ebazpena.

1. Txostenaren izapidegilea Lezamako Udaleko Kultura, Kirol, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordearen batzordeburua izango da.
2. Onesteko proposamena egiten duen ebaluazioaren emaitza adierazteko txostena egingo duen kide anitzeko organoa Lezamako Udaleko Kultura, Kirol, Gazteria eta Euskarako Informazio Batzordea izango da.
- 3- Deialdia ebazteko erabakia Alkatetzak hartuko du, organo izapidegileak proposatuta.

8. artikulua.-Dirulaguntza emateko prozedura.

1. Diru-laguntzak norgehiagokako araubidean emango dira.
2. Erakunde edo eskatzaile bati inoiz ere ez zaio dirulaguntza bat baino gehiago emango oinarri hauen babesaren pean.
3. Erakunde batzuei dirulaguntza ematea ebatzi ondoren, Udalak erakundeoi gehienez ere ordainduko die aurrekontuan helburu horretarako ezarri den zenbatekoa, oinarri hauetan adierazitakoa.
4. Aurrekontuan jasotako zenbateko hori dirulaguntza onartzen zaien erakundeen artean banatuko da haietariko bakoitzak lortutako puntu kopuruaren proportzioan, arauotan aipatutako balioztatze irizpideak aplikaturik; dirulaguntza inoiz ere ezin izango da handiagoa izan eskatutako zenbatekoa baino, zerbitzuaren, programaren edo jardueraren kostua baino eta aurkeztutako programak edo proiektuak dirulaguntzen araubide honetarako ezarritako gehienekoa baino.
5. Helburu horretarako, aurkeztutako eskaerak bata bestearekin alderatuta emango dira diru-laguntzak; era horretan, haien arteko lehentasun ordena ezarriko da emandako puntu kopuruak balioztatze irizpideen arabera zehaztuta; goren balioztatzen direnei emango zaie diru-laguntza, baina inoiz ezin izango da gainditu aurrekontuetan helburu horretarako ezarritako zenbatekoa, ezta arauon 15. artikuluan diruz lagunduko diren erakunde eta proiektu bakoitzerako gehienez ere ezarritako muga ere.
6. Proposatutako diru-laguntzaren zenbatekoa txikiagoa bada aurkeztutako eskaeran adierazitakoa baino, orduan baldintza batekin eman daiteke dirulaguntza; alegia, erakunde onuradunak eskaera berriro egin beharko du konpromisoak eta baldintzak emandako diru-laguntzara egokitzeke. Berriro egindako eskaera hori aurkeztu behar da diru-laguntza jakinarazten denetik dirulaguntzaren ordainketa gauzatu bitartean.
7. Ebatzitakoa jakinaraziko zaie hala dirulaguntza ematen zaien erakundeei nola diru-laguntza ukatzen zaienei, eta adieraziko zaizkie arrazoiak eta organo ebazleak egoki deritzen gainerako baldintzak.

8. 10. artikuluan zehaztutako balioztatze irizpideak aplikaturik, batuketa egin eta lehentasun ordena ezarriko da, arautan ezarritakoaren arabera eskatzaile bakoitzari proportzionalki dagokion dirulaguntza emateko.

9. artikulua.- Ebazpenerako informazioa.

Lezamako Udaleko Kultura, Kirol, Gazteria eta Euskararako Informazio Batzordeak, txostenen ebazpenerako azterketak egiten hasi aurretik, eskatzaileek aurreko urteetan Lezamako Udaletik jasotako diru-laguntzen justifikazioa -12. artikuluan xedatutakoaren arabera- eskura izatea, Udaleko Ekonomolari eta Idazkari-kontu hartzailearen informarekin batera.

10. artikulua.-Eskaerari ezezkoa ematea.

1. Diru-laguntza eskatzen duenak 20 puntu baino gutxiago lortzen badu, diru-laguntza emateko sistematik kanpo geratuko da.

2. II. kapituluan zehaztutako agiriak aurkezten ez badira edo III. kapituluan zehaztutako epeak betetzen ez badira, eskaerari ezezkoa eman ahalko zaio; kasu horretan, besterik gabe artxibatuko da.

3. Beste alde batetik, eskatzaileak oraindik aurkeztu gabe badauka Lezamako Udalak aurretik emandako diru-laguntzei buruzko azalpen txostena, eta/edo agiri bitartez egiaztatu gabe badauka, orduan eskatzaile horren eskaerari ezezkoa eman zaiola ulertuko da.

4. Eskaerari edo eskaerei ezezkoa eman zaiela ulertuko da, halaber, 6.artikuluan ezarritako epea igarotzen bada.

11. artikulua.- Eskabideak baloratzeko irizpideak

1. Proiektuaren edo programaren kalitate teknikoari eta koherentziari buruz honako hau balioztatuko da (**% 30**):

1.1. Egitekoa den proiektuari eta hura gauzatuko deneko testuinguru sozialari buruzko informazioa.

1.2. Deskribatutako helburuen, proposatutako jardueren, nahi diren emaitzen eta erabiliko diren baliabideen arteko egokitzapena.

1.3. Bideragarritasun teknikoa eta finantzarioa eta ingurumen arloko iraunkortasuna.

1.4. Proiektuak eraldatze sozialerako duen gaitasuna, batez ere heziketa jardueren bitartez.

1.5. Lezamako Udalak diruz lagundutako proiektu edo programen jarraipen edo ondorio diren proiektu edo jarduerak garatzea.

1.6. Kultura autoktonoak, giza eskubideak eta demokrazia sendotu eta indartzea.

1.7. Argazkiak, mapak, kokapena, etab. eranstea, deskribatutako tokoa zein den eta non dagoen jakiteko balio dutenak.

1.8. Proiektua gauzatzean eta amaieran egingo diren jarraipen jardueren deskripzioa; deskribatuko dira eskaera egiten duen GKEk egingo dituenak eta laguntza jasotzen duen kontraparteak egingo dituenak.

2. Genero berdintasuneko politikei buruz honako hau balioztatuko da (**% 20**):

2.1. Proiektuan, ekintzan edo jardueran genero ikuspegia ezartzea.

2.2. Emakumeek proiektuan parte hartzera bultzatzeko prozedura eta metodologiak.

2.3. Emakumeen bizi baldintzen hobekuntza justifikatzea eta haien eskubide eta aukerak sustatzea.

2.4. Genero berdintasuneko balioen alde jokatzeko.

3. Eskaera egiten duen GKEri buruz honako hau balioztatuko da (**% 15**):

3.1. GKEren esperientzia eta kudeatzeko gaitasuna. Beste proiektu, jarduera edo programa batzuk burutu direla egiaztatzea, baldin eta eskaera honen gai denaren antzekoak badira.

3.2. Eskualdean eta proposatutako arloan proiektuak egiten izandako esperientzia.

3.3. Beste euskal instituzio eta erakunde batzuk proiektuan inplikatzeko.

3.4. Lezamako Udalak diruz lagundu dituen beste jarduera edo programa batzuen jarraitutasuna.

4. Toki erakunde publikoen parte hartzeari buruz honako hau balioztatuko da (**% 15**):

4.1. Proiektua edo jarduera egingo deneko herriko edo eskualdeko instituzio demokratiko eskudunen edo erakunde publiko eskudunen sostengua eta parte hartzea edo laguntza badirela egiaztatzea.

4.2. Proiektua amaitu ondoren erakunde publiko eskudunek sostengua ematen diotela egiaztatzea.

5. Alde geografikoari buruz honako hau balioztatuko da (**% 10**):

5.1. Helburu herrialdeko eskualdea bereziki ahula dela edo krisian dagoela egiaztatua egotea.

5.2. Instituzioen konpromiso bat egotea, **Lezamako Udalak** hartua, herrialdeko herriari edo eskualdeari laguntzeko edo senidetzeko.

6. Proiektuaren hartzaile den populazioari buruz honako hau balioztatuko da (**% 10**):

6.1. Biztanleriaren zati bereziki ahulen bizi baldintzak hobetzea eta laguntza ematea; zati bereziki ahulok dira eskualde atzeratuetako biztanleak, landa eremuetakoak, hiri ingurukoak, haurrak.

6.2. Beste biztanle edo talde batek, zeinak ideologia, erlijio edo ekonomia arrazoiak direla medio beren ohiko habitatetik lekualdatu edo bereiztearen ondorioz bazterturik baitaude.

12. artikulua.- Diru-laguntza ordaintzeko modua.

1. Erakunde onuradunak adieraziko du zein den titular gisa duen banku kontuaren zenbakia, eta diru-laguntzaren zenbateko osoa kontu zenbaki horretan ordainduko da; ordainketa hori, gehienez ere, hilabeteko epearen barruan egingo da dirulaguntza ematea erabakitzen denetik zenbatzen hasita.

2. Erakunde onuradunak bankuaren ziurtagiria aurkeztu behar du dirulaguntzaren sarrera egin baino lehen; ziurtagiri horretan, adierazitako banku kontuaren titularra erakunde hori dela agertuko da dirulaguntza kontu horretan ordaintzeko. Hurrengo ekitaldian erakunde berari jarduera, edo programa jakin baterako dirulaguntzarik ematen bazaio, ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea, salbu eta erakunde onuradunak hala eskaturik aldatzeko eskatzen denean; aldaketa eskatuz gero, aldaketa horri dagokion banku ziurtagiria aurkeztu beharko da.

3. Ez zaio eskatuko gordailuan bermerik jar dezala betebeharrak gauzatuko dituela eta emandako funtsak egoki erabiliko dituela bermatzeko.

4. Erakunde onuradunari ez zaio ordainduko, baldin eta aurreko ekitaldian jasotako diru-laguntzetatik Udalak haietakoren baten justifikazioa onetsi ez badu.

13. artikulua.-Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea.

1. Diru-laguntza hauen jasotzaileek dirulaguntzen erabilera egokia egiaztatu behar dute **bi** hilabeteko epean, jarduera, ekintza edo programa egiten den urteko abenduaren 31tik zenbatzen hasita; edozein kasutan ere, erakunde batek Udalari edozein eratako diru-laguntza eskatzen badiu eta aurreko urtean dirulaguntzarik jaso badu, aurreko urteko dirulaguntzaren erabilera egokia egiaztatu behar du beste edozein diru-laguntza eskatu baino lehen.

2. Irabazteko asmorik gabeko elkarte edo erakundeei emandako diru-laguntzaren erabilera egokia egiaztatzeko agiriak dokumentazio hau bildu behar du:

2.1. Gauzatutako jarduerak xehetasunez jasotzen dituen txostena; txosten horretan zehaztuko du zein jarduera egin dituen, jardueron emaitza zein izan den, zein helburu lortu diren eta zein arazo izan diren. Jarduera edo programa bat egiteko dirulaguntza jaso duen erakundeak liburuxka, kartel, liburu edo antzekorik argitaratzen badu, haietako bakoitzaren ale bat aurkeztu behar du, argitaratzeko erabilitako formatua edozein dela: liburua, irudia, soinua edo formatu digitala.

2.2. Diru-laguntza eman zaion jardueraren, ekintzaren edo programaren ondorioz izandako diru sarrera eta gastuen balantza. Diruz lagundutako jarduera edo programa egitearen ondorioz sortutako gastuen jatorrizko frogagiriak; frogagirion kopurua iritsi behar da, gutxienez, dirulaguntzan guztira emandako kopurura. Frogagiriok izango dira soldata orriak, jatorrizko fakturak edo balio juridikoa duten kopia egiaztatuak edo trafikiko

juridikoan eta merkatuan balioa duten gainerako agiriak, baldin eta gastuak frogatzeko aurreko agirien pareko balioa badute. Fakturak zenbatu eta zerrenda batean ezarriko ditu eta zerrenda hori aipatu diren agirioi gehituko die. Erakundearen ordezkariak sinatutako ziurtagiri bat ere aurkeztuko du; ziurtagiri horretan egiaztatuko du aurkeztutako gastuen frogagiri guztiak bat datozela diruz lagundutako programarekin edo jarduerarekin. Jarduerak, programak edo proiektuak urtebetetik gorako iraupenik badu, dirulaguntza zein ekitalditarako eskatu eta ekitaldi horri dagozkion frogagiriok aurkeztu beharko ditu. Ordainketa gauzatu dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko du.

14. artikulua.-Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1. Lezamako Udalak erakunde bati diru-laguntzarik ematen badio, halako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek ematen dizkiotenekin. Nolanahi ere, diruz lagundutako jardueraren edo programaren betearazpena finantzatzeko lortutako zenbatekoa ezin daiteke handiagoa izan diruz lagundutako programaren kostua baino.

2. Diru-laguntza hartutako erakundeak udal administrazioari jakinarazi beharko dio ea, eskaera formalizatu ondoren, beste dirulaguntzarik edo laguntasunik jaso duen xede bererako.

V. Kapitulua.

Aurrekontu kredituak eta diru-laguntzaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa.

15. artikulua.- Aurrekontu kreditua eta dirulaguntzaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoa.

1. Dagokion deialdiarentzat erabiliko den kreditua deialdia egiten den ekitaldirako onartutako udal aurrekontuan dagokion sailean islatutako zenbatekokoa izango da.

2. Erakunde eskatzaile bakoitzeko eta jarduera edo programa bakoitzeko eman daitekeen diru-laguntzarik handiena lau mila eurokoa (4.000,00 euro) izango da, arauon 8. artikuluan adierazitako salbuespena aplikatu beharraren kontra jarri gabe.

AZKEN XEDAPENA.

Ordenantza honetan xedatutakoari dagokionez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean eta hura garatzeko erregelamendu orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.